



GETXOKO UDALAREN ETA URIBE KOSTAKO GIZARTE ZERBITZU MANKOMUNITATEAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO-HITZARMENA, BIZKAIKO GIZARTE-ZERBITZUEN MAPA GAUZATZEAN ESKUALDEAK ESKAINI BEHARKO DITUEN ZERBITZUAK KUDEATZEARI BURUZKOA

Getxon, 2017ko azaroaren 27an

BILDU DIRENAK

Alde batetik, Imanol Landa Jauregi jauna, Getxoko Udaleko alkate-udalburua, udalaren izenean eta ordezkartzan, eta Udaleko Gobernu Batzarrak 2017ko urriaren 10rean egindako erabakia betez.

Beste alde batetik, Anabel Landa Gaubeka andrea, Uribe Kostako Gizarte Zerbitzu Mankomunitateko presidentea, haren izenean eta ordezkartzan, eta Mankomunitateak 2017ko urriaren 11n egindako erabakia betez.

ADIERAZTEN DUTE

Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 7. artikuluan, gizarte-zerbitzuen sistema arautuko duten printzipio nagusiak zehaztu zituen. Lehenengo atalean adierazi zuen gizarte-zerbitzuen sistema botere publikoen erantzukizuna dela, eta botere horiek bermatu beharko dituztela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoak araututako prestazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta horietarako sarbidea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eskubide unibertsal gisa bermatu zuen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio eta zerbitzu bakoitzean sartzeko betekizunak, orokorrak nahiz bereziak, betetzen dituztenentzat. Aipatutako

CONVENIO ADMINISTRATIVO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES DE URIBE KOSTA RELATIVO A LA GESTIÓN DE LOS SERVICIOS A PRESTAR POR LA COMARCA EN EJECUCIÓN DEL MAPA DE SERVICIOS SOCIALES EN BIZKAIA.

En Getxo a 27 de noviembre de 2017

REUNIDOS

De una parte don Imanol Landa Jauregi, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Getxo, nombre y representación del Ayuntamiento y en ejecución del acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local de fecha 10 de octubre de 2017.

De otra parte, doña Anabel Landa Gaubeka, Presidenta de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Uribe Kosta, en su nombre y representación y en ejecución del acuerdo de la Mancomunidad, de fecha 11 de octubre de 2017.

EXPONEN

Que la Ley del Parlamento vasco 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales, en su artículo 7 determina los principios generales por los que se regirá el sistema de servicios sociales, señalando en su apartado primero que el sistema de servicios sociales es responsabilidad de los poderes públicos y que los mismos deberán garantizar la disponibilidad y acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales garantiza el acceso a las prestaciones y servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales como un derecho universal y subjetivo para todas las personas que cumplan los requisitos, generales y específicos, de acceso a cada servicio o prestación económica del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco



legearen 21. eta 22. artikuluek arautu zuten prestazioen katalogoa.

Xedapen horiekin bat etorritz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua onetsi zen, bai eta horren prestazio eta zerbitzuetan sartzeko betekizun, irizpide eta prozedurak. Xedapen horien bidez, lehen aipatutako legeak jasotako eskubide subjektiboa zehaztu eta mugatu zen eta, aldi berean, euskal administrazio publikoen betebeharrak zehaztu ziren, adierazitako zorroko prestazio eta zerbitzuak hornitzeari dagokionez. 2016ko abenduaren 25a ezarri zen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema orokortzeko data gisa.

Arestian definitutako zerbitzu eta prestazioak hainbat lurralde-eremutan ematen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Mapa eta Plan Estrategikoa 2015eko abenduan onetsi ziren eta, ondoren, 2016ko ekainean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa. Zerbitzuen zorroak jasotako zerbitzuak oinarritzeko gune, inguru, eskualde edo sektoreetan emango dira.

Getxoko Udala oinarritzeko gunea da, baita inguru ere, eta Uribe Kostako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udalerriek eta Getxoko Udalak eraturitako eskualdearen barruan dago. Azkeneko lurralde-maila horri dagozkio, hain zuzen, zerbitzu hauek ematea: bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko arreta-zerbitzua, gaueko harrera-zerbitzua eta baztertzeko arriskuan daudenentzako tutoretzapeko etxebizitzak, Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako zehaztapen kuantitatiboekin.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak, 43. artikuluan, arautu zuen gizarte-zerbitzuen alorrean eskudunak diren administrazio publikoak euren artean elkarlanean aritzeko eta koordinatzeko beharra, sistemaren

de Servicios Sociales. Dicho Catálogo de Prestaciones viene regulado en los art. 21 y 22 de la citada Ley.

De conformidad con estas previsiones, se aprueba el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, así como los requisitos, criterios y procedimientos de acceso a sus prestaciones y servicios. Con estas determinaciones se da contenido y delimita el derecho subjetivo proclamado en la citada ley y a la vez se concretan las obligaciones de las administraciones públicas vascas en relación con la provisión de las prestaciones y servicios de la citada cartera, estableciendo como fecha para la universalización del Sistema Vasco de Servicios Sociales el 25 de diciembre de 2016.

Los servicios y prestaciones antes definidos se prestan en diferentes ámbitos territoriales. En diciembre de 2015 se aprobó el Plan Estratégico y el Mapa de la Comunidad Autónoma del País Vasco y posteriormente, en junio de 2016, se ha aprobado el Mapa de Servicios Sociales correspondiente al Territorio Histórico de Bizkaia. Los servicios recogidos en la Cartera de Servicios se prestan a través, bien de zonas básicas, áreas, comarcas o sectores.

El Ayuntamiento de Getxo constituye una zona básica, así como un área y se incorpora en una comarca constituida por los municipios integrados en la Mancomunidad de Servicios Sociales de Uribe Kosta y el Ayuntamiento de Getxo, correspondiendo a este nivel territorial la prestación del servicio de atención diurna para personas en situación de exclusión, el servicio de acogida nocturna y las viviendas tuteladas para personas en riesgo de exclusión, con las determinaciones cuantitativas recogidas en el Mapa de Servicios Sociales.

La Ley de Servicios Sociales, en su art. 43, regula el deber de cooperación y coordinación entre las administraciones públicas competentes en el ámbito de los servicios sociales para garantizar la máxima



funtzionamendua ahalik eta koherenteen, bateratuen, eraginkorren eta efizienteen izan dadin.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 3. artikuluan jaso zuen administrazioek interes orokorren arabera eta objektiboki ematen dituztela zerbitzuak, eta eraginkortasuneko, hierarkiako, deszentralizazioko, deskontzentrazioko eta koordinazioko irizpideei jarraituz dihardutela, bete-betan men eginez Konstituzioari, Legeari eta Zuzenbideari. Hala, jarduketa eta harremanetan zenbait irizpide errespetatu behar dituzte, kasurako, administrazio publikoen arteko elkarlana, lankidetzeta eta koordinazioa.

Lehen aipatutako 40/2015 Legeak, lehenengo tituluko VI. kapituluan, arautu zituen administrazio publikoak izenpetu beharreko hitzarmenak, 47. artikuluan eta hurrengoetan zehazki. 47.2. artikuluan, berriz, ezarri zuen horien barruan izango zirela bi administrazio publikok edo gehiagok sinatutako administrazio-hitzarmenak berezko edo eskuordetutako eskumenak gauzatzeko. Lege-testu horren 48. artikulua ezarritakoaren arabera, hitzarmenak izenpetzeak honetarako balio beharko du: kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko, baliabide eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazteko, onura publikoko jarduerak egiten laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzeko. Bestalde, kapitulu horretan jaso zituen hitzarmenen edukiek bete beharreko betekizunak.

Zerbitzuak emateko udal-eskumena, aldiz, honako xedapen hauek arautu zuten: Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2.e) artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.13. artikulua, arestian aipatutako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta prestazio eta zerbitzuen zorroa zehaztu zuen 185/2015 Dekretua.

coherencia, unidad, eficacia y eficiencia en el funcionamiento del sistema.

La Ley 40/2015, de 1 de octubre, relativa al Régimen Jurídico del Sector Público indica, en su art. 3, que las administraciones sirven con objetividad los intereses generales y actúan con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la Constitución, a la Ley y al Derecho, debiendo respetar en su actuación y relaciones determinados principios entre los que se encuentra el de cooperación, colaboración y coordinación entre las administraciones públicas.

La indicada ley 40/2015 en el capítulo VI del Título Primero, art. 47 y siguientes regula los convenios a suscribir por la Administración Pública indicando en el 47.2 como un tipo de los convenios los convenios administrativos firmados entre dos o más administraciones públicas para el ejercicio de competencias propias o delegadas. Dicho texto legal en su art. 48 determina que la suscripción de convenios deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. Asimismo, recoge en el capítulo indicado los requisitos que deben cumplimentar el contenido de los convenios.

La competencia municipal para la prestación de estos servicios viene regulada, tanto en el art. 25.2e) de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local como en el art. 17.1.13 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, como también en la indicada Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y en el Decreto 185/2015 que determina la Cartera de prestaciones y servicios.



Adierazitakoa oinarri hartuta, txostena izenpetu dute ondorengo klausulak kontuan izanik.

En base a lo expuesto formalizan el presente convenio, en base a las siguientes

KLAUSULAK

CLAUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA

PRIMERA.- OBJETO

Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko gizarte-zerbitzuei buruzko araudiaren ondorioz sortutako betebeharrei erantzuteko esparru administratiboa sortzea da hitzarmen honen helburua, adierazpenen zatian adierazi den bezala, eskualde-mailan eman behar diren zerbitzuei dagokienez.

El objeto del convenio es fijar el marco administrativo para dar respuesta a las obligaciones derivadas de la normativa de servicios sociales de aplicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco respecto a aquellos servicios que tal como se ha indicado en la parte expositiva corresponden prestarse a nivel de comarca.

BIGARRENA.- KONTRATUAK XEDE DITUEN ZERBITZUAK

SEGUNDA.- SERVICIOS OBJETO DEL CONVENIO

Hitzarmenak honako zerbitzu hauek ditu xede:

Son servicios objeto del convenio los siguientes:

- a).- Bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko arreta-zerbitzua.
- b).- Gaueko harrera-zerbitzua.
- c).- Baztertzeko arriskuan daudenentzako tutoretzapeko etxebizitza.

- a).- Servicio de atención diurna para personas en situación de exclusión
- b).- Servicio de acogida nocturna
- c).- Vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión.

2017. urterako egin diren aurreikuspenei jarraikiz, eta zerbitzuen zorroa aplikatuz, horien kuantifikazioa hauxe da: eguneko bazterketa-arretan 7 plaza behar dira; gaueko harreran, 19 plaza; eta baztertzeko arriskuan daudenentzako tutoretzapeko etxebizitzetan, 13 plaza.

De conformidad con las proyecciones establecidas para el año 2017, en aplicación de la Cartera de Servicios la cuantificación de los mismos es la siguiente: en atención diurna de exclusión se requieren 7 plazas, en acogida nocturna 19 plazas y en viviendas tuteladas con riesgo de exclusión 13 plazas.

Lehenengo bi zerbitzuetarako sarbidea zuzena denez gero, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekiko lehen harremana izan daitekeenez, Getxoko Udaleko gizarte-zerbitzuetako sailek eta Uribe Kostako Mankomunitateak koordinazio-sistemak ezarri ahal izango dituzte erabiltzaileekin egiten diren esku-hartze sozialen jarraipena egiteko.

Dado que los dos primeros servicios son de acceso directo y puede ser el primer contacto con el Sistema Vasco de Servicios Sociales, los departamentos de servicios sociales del Ayuntamiento de Getxo y la mancomunidad de Uribe Kosta podrán establecer sistemas de coordinación para el seguimiento de la intervención social con las personas usuarias.

HIRUGARRENA.- ZERBITZUAK KUDEATZEKO MODUA

TERCERA.- FORMA DE GESTIÓN DE LOS SERVICIOS

Baztertutakoen eguneko arreta-zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua Getxoko udalerriko

Respecto a los servicios de atención diurna y acogida nocturna de exclusión, dichos



azpiegituretan emango dira. Beraz, Getxoko Udalak beharrezko azpiegiturak hornitzeko ardura izango du, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak jasotako formuletakoz aplikatuz, zerbitzua eman ahal izateko lehen aipatutako kuantifikazioan.

Halaber, Getxoko Udalari dagokio zerbitzu horietako kudeaketa zuzendu, kontrolatu eta jarraitzea, Jarraipen Batzordeari esleitutako eginkizunak gorabehera.

Baztertzeko arriskuan daudenentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako dagokienez, Getxoko Udalak 9 plaza eskainiko ditu, eta Uribe Kostako Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak, berriz, 4 plaza. Horrenbestez, erakunde bakoitzak eskaintzen dituen eta bere lurralde-eremuan dauden plazak kudeatu beharko ditu; hala ere, baterako erabilera ezarri ahal izango da, Jarraipen Batzordeari buruzko klausulan araututakoa.

LAUGARRENA.- HITZARTUTAKO ZERBITZUEN FINANTZAZIOA

Bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko arreta-zerbitzuaren eta gaueko harrera-zerbitzuaren kasuan, Uribe Kostako Mankomunitateak bere gain hartuko du zerbitzuaren kostuaren %32,59 eta Getxoko udalak %67,41. Zenbateko hori eskualdea osatzen duen lurralde-eremu osoan berari dagokion biztanle-portzentaiearen arabera kalkulatu da.

Baztertzeko arriskuan daudenentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako dagokienez, aldiz, erakunde bakoitzak ordaindu beharko ditu bere lurralde-eremuan dauden etxebizitzetarako gastuak.

BOSGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmena izenpetu duen erakunde

servicios se prestarán en infraestructuras ubicadas en el municipio de Getxo, correspondiendo al Ayuntamiento de Getxo proveer mediante algunas de las fórmulas recogidas en la Ley de Servicios Sociales de la infraestructura necesaria para hacer frente al servicio en la cuantificación antes referenciada.

Corresponderá también al Ayuntamiento de Getxo la dirección y control y seguimiento de la gestión de dichos servicios sin perjuicio de las funciones reservadas a la Comisión de Seguimiento.

Respecto a las viviendas tuteladas para las personas en riesgo de exclusión un número de 9 plazas se facilitarán por parte del Ayuntamiento de Getxo y 4 plazas se facilitarán por la Mancomunidad de Servicios Sociales de Uribe Kosta, correspondiendo a cada entidad la gestión de aquellas que facilita y se ubican en su ámbito territorial sin perjuicio de las determinaciones de la posibilidad de un uso compartido que se regulan en la cláusula relativa a la Comisión de Seguimiento.

CUARTA.- FINANCIACIÓN DE LOS SERVICIOS CONVENIDOS

Respecto al servicio de atención diurna para personas en situación de exclusión y al servicio de acogida nocturna, la Mancomunidad de Uribe Kosta asumirá el 32,59% del coste del servicio, y el Ayuntamiento de Getxo el 67,41% restante, cuantías que se derivarán de su porcentaje de población sobre el total del ámbito territorial que constituye la comarca.

Respecto al servicio de viviendas tuteladas para personas con riesgo de exclusión, cada entidad se hará cargo de los gastos derivados de las viviendas ubicadas en sus respectivos ámbitos territoriales.

QUINTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Se constituye una Comisión de Seguimiento

bakoitzeko bi ordezkari teknikok osatuko dute Jarraipen Batzordea eta horren helburuak hauexek izango dira:

- a) Zerbitzuen prestazioaren emaitzak ezagutzeko beharrezko informazioa eskuratzea.
- b) Hitzarmena izenpetu duen alde bakoitzeko tutoretzapeko etxebizitzaren balizko erabilera koordinatzea, alde bakoitzak bestearenak erabili ahal izateko horretarako behar puntualik badu.

Bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko arreta-zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua kudeatzearen ondorioz sortutako gastuak ezagutzea, bai eta Uribe Kostako Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak horiek finantzatzeko aldera ordaindu beharreko zenbatekoaren berri ematea ere eta ordainketa nola egin behar den.

- c) Hitzarmena izenpetu duten bi aldeetako gizarte-zerbitzuek dituzten politikak koordinatzea, hitzartutako zerbitzuei dagokienez.

Jarraipen Batzordea, gutxienez, urtean bitan bilduko da hitzarmenaren gauzatzean sortu daitezkeen gorabeherak argitu eta interpretazioak zehazteko. Bileretan ebazpenak egin beharko dituzte ondorengoak lotuz: alde biek (Getxoko Udala eta Uribe Kostako Mankomunitatea) finantzatu beharreko zerbitzuetarako gastuen aurreikuspenei buruzkoak, zerbitzuak eman ondoren izandako benetako gastuen ingurukoak eta hitzarmeneko laugarren klausulan jasotako bakoitzari dagokion ordainketa ehunekoa gauzatzeari dagozkionak. Azken kasu honetan zerbitzuko eta epeko kopuru zehatzak ezarri beharko dira.

Jarraipen Batzordean kopuruak zehaztu ondoren alde bietako batek ekarpen ekonomikoa egin beharko balu, zehaztuko den eran egin beharko da ordainketa. Horretarako, jasotzaileak kopurua erreklamatu beharko du eta likidazioa egin denetik bi hilabeteko epea izango da ordainketa egiteko.

integrada por dos representantes técnicos de cada entidad conveniente con las siguientes finalidades:

- a) Acceder a la información necesaria para conocer los resultados de la prestación de los servicios.
- b) Coordinar la posible utilización de las viviendas tuteladas que dispone cada parte conveniente a los efectos de poder utilizar cada parte las correspondientes a la otra en supuestos de necesidad puntual.
- c) Conocer los gastos derivados de la gestión de los servicios de atención diurna y acogida nocturna para personas en situación de exclusión, así como informar a la Mancomunidad de Servicios Sociales de Uribe Kosta sobre la cuantía a abonar y forma en que deberá ésta hacerse efectiva para la financiación de los mismos.
- d) Coordinar las políticas de servicios sociales de ambas partes convenientes en relación a los servicios conveniados.

La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos dos veces al año para dilucidar todas las cuestiones relativas a la ejecución e interpretación del Convenio. Entre otras, se tratará lo referente a los gastos previsibles del coste de los servicios a financiar entre ambas partes (Ayuntamiento de Getxo y Mancomunidad de Servicios Sociales de Uribe Kosta), el coste final efectivo de dichos servicios y la forma en que deberán hacerse efectivos los porcentajes de participación en la financiación a los que se refiere la cláusula cuarta anterior, fijando las cuantías definitivas a aportar por servicio y periodo determinado.

Aprobadas dichas cuantías por la Comisión de Seguimiento, si de las mismas se derivasen aportaciones pendientes de realizar por alguna de las partes éstas deberán satisfacerse, previa reclamación por la otra, en la forma que en su momento se considere más adecuada y en el plazo máximo de dos



meses contados a partir de la aprobación de la liquidación a la que se refieren.

SEIGARRENA.- IRAUPENA

Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, eta indarreko legeriak ahalbidetzen dituen luzapenak egin ahal izango dira.

SEXTA.- DURACION

El presente Convenio tendrá una vigencia de cuatro años sin perjuicio de las prórrogas que posibilite la legislación vigente.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Hauexek izango dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak: alde bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea eta, bereziki, zerbitzuak finantzatzeko dagokion zenbatekoa ez ordaintzea.

SÉPTIMA.- CAUSAS DE RESOLUCION DEL CONVENIO

Serán causas de resolución del convenio el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y en especial la falta de pago de la cuantía que corresponda para la financiación de los servicios.

ZORTZIGARRENA.- KLAUSULA OROKORRA

Hitzarmen honetan jasota ez dauden alderdi guztiei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak hitzarmenaren inguruan ezarritakoa aplikatuko da.

OCTAVA.- CLAUSULA GENERAL

En lo no dispuesto en el presente Convenio será de aplicación lo determinado para los convenios en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, relativa al Régimen Jurídico del Sector Público.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Kontuan izanik, hitzarmen hau onetsi eta izenpetu denean, bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko arreta-zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua hartuko dituzten baliabideak behin-behinean 2017ko urtarrilaren 1etik martxan daudela Getxo (eguneko arreta-zerbitzua) Berangoko (gaueko harrera-zerbitzua) udalerrietan. Halaber, aldi baterako prestazio hori amaitutakoan, likidazio egokia egingo da, hitzarmena izenpetu duen alde bakoitzari dagokion balizko zenbatekoa ordaintze aldera.

DISPOSICION TRANSITORIA

Teniendo en cuenta que a la fecha de la aprobación y firma del presente convenio los recursos destinados a hacer frente al servicio de atención diurna para personas en situación de exclusión y al servicio de acogida nocturna se hallan operativos de forma provisional, desde el 1 de enero del 2017, en el municipio de Getxo (atención diurna) y Berango (acogida nocturna), a la finalización de esta prestación temporal se realizarán la liquidación correspondiente a efectos del abono que pudiera corresponder para la financiación del mismo a cada parte conveniente.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatu dute alde biek, goian adierazitako

Y en prueba de conformidad y en lugar y fecha indicados firman ambas partes el presente Convenio.



tokian eta egunean.

*Izpta./Fdo.: D. IMANOL LANDA JAUREGI
jnk.*

Getxoko alkatea

*Izpta./Fdo.: ANABEL LANDA GAUBEKA,
andk*

**Uribe Kostako Gizarte Zerbitzu
Mankomunitateko presidentea** /Presidenta
de la Mancomunidad de Servicios Sociales de
Uribe Kosta